

XVI. BILTZARRAREN ANTOLAKIZUNAZ

*Jose Luis Lizundia,
diruzaina*

Iker Sailburuak aurkeztu dizue datorren urtean egiteko asmoa dugun Biltzarraren lehen egitasmoa. Alderdi akademikotik prestatu du XVI.a izan daitekeen Biltzar hau eta, bigarrena Nafarroan, herrialde horretako lehendabizikoa 1984ean Iruñean izan baitzen, gramatikari eskainia, Arturo Campionen omenez.

Antolaketaaren aldetik, hara hor, ildo nagusiak:

- Tokia: Iruñea eta, ahal delarik Nafarroako Unibertsitate Publikoa edota Baluarte. Finkatuko da.
- Data: 1908ko irailaren 29tik urriaren 4ko astean. Gogora 1968an ere, Gipuzkoako Arantzazuko Biltzar famatua data horietan izan zela, urriaren 3, 4 eta 5ean; Leioakoa, 1994.ko urriaren 3, 4, 5 eta 6an eta datorren urtean betetzen direla Euskaltzaindiaren sortze erabakiaren 90 urteak.
- Biltzarra arintzeko zenbait emanaldi antolatzeko asmoa dugu: erakusketa, kontzertu, dantza eta abar; baina oraingoz gehiago zehazteke.
- Biltzarretan ohi bezala, Nafarroan zehar txango bat antolatzeko asmoa dugu, euskararekin zerikusia izan dezakeen ibilbidearekin.
- Partaidetza akademikoa: Institut d’Estudis Catalans, Huescako Instituto de Estudios Altoaragoneses, Institut d’Estudis Occitans eta antzerako erakundeekin harremanetan sartuko gara, hots, Pirinioetako hizkuntzeekin zerikusia dutenekin.
- Babesak: aurrekontu eta, oro har, diru babesen aldetik, Nafarroako Foru Erkidegoko agintarien laguntza izango da lehendabizi kudeatu behar duguna. Hala ere, Diruzaintzaren ikuspegitik, kontuan izanik Pirinioetako hizkuntzak eta literaturak dela begiz jotako gai nagusia, Aragoiko Diputazio Generalera, Huescako Diputazio Probintzialera, Kataluniako Generalitatera, agian Andorrara eta borondatea duten neurrian, Frantses Errepublikaren Hegoaldeko hiru Eskualde Kontseiluetara.

- Antolakizun Batzordea: datorren hileroko batzarrean Euskaltzaindiaren Batzorde Organigrama berria hornitzen denerako proposatuko dugu Antolakizun Batzorde zehaztu bat. Oraingoan, ni neu, Diruzain legez; Andres Iñigo, Nafarroako Ordezkar bezala; Juanjo Zearreta, Kudeatzaile gisa eta Pello Telleria, Idazkariorde denetik. Beste norbait edo norbaitzuk sartzekotan, Nafarroako besteren batekin behintzat kontatu behar da, «in situ» lankideak izateko.
- Biltzarrek ongi eratzeko, batzorde akademiko eta antolakizunezkoaz gain, Araudi propio bat behar izaten dute: hitzaldi eta txostenen bereizketa, txostenen onarpena, eztabaidaketa prozedura, erakunde harreman eta prentsa, dieta eta gastuak, azpiegitura eta gainontzeko xehetasunak Erregelotan finkatuko dira, garaiz, Zuzendaritzaren bidez, osoko bilkura batera aurkeztuko direlarik.